

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Fabian Etxebarria Berezibar

*Arrasate
Gipuzkoa (1927)*

Aurkibidea



Biografia



Meatzerreka auzoko Montzon baserrian jaio zen 1927an. Ama Montzon bertakoa zuen eta aita Aretxabaletako Galartza auzoko Perurena ("Kukuzulo") baserrikoa. Zortzi anai-arrebatatik gazteena da bera. Kanpazarko Mikelete Etxeko eskolan hasi zen 9 urterekin. Berehala gerra hasi zen eta 12 urtera arte ez zuen eskolarik izan. Hamabi urterekin San Jose kolegioan hasi zen eta 14 urtera arte ibili zen bertan. Etxean geratu zen baserriko eta basoko lanak egiten. 32 urte zituela, bere anai-arrebeekin elkarlanean, gerra denboran itxitako Kanpazarko harrobia berriro martxan jarri zuen. Elkarriketa egin zen sasoian oraindik ere familiakoen kargu zegoen harrobi hori. Bizikleta zalea, 1945. urtean, ziklo-kros saria atera zuen Arrasaten. Salturri baserriko Maria Teresa Berezibarekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Zintak

ARR-070

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-06-17
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com